

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Atzeritartasun zerbitzu honen helburua immigrazioarekin lotutako prozeduren tramitazioa erraztea eta aholkatzea da. Bi jardun-ildotan egituratzen da:

Immigrazio Teknikariak kudeatzen duen 1. Arreta Unitateak astean behin orientazio pertsonalizatua eskaintzen du, izapideak errazten ditu, txostenak egiten ditu, gizarteratze-beharrak diagnostikatzen ditu eta udal-zerbitzuekin eta Eusko Jaurlaritzaren Aholku Sarearekin koordinatzen du.

2. Arreta Unitatea Bidea Eginez (Aholku Sarea) elkarteak kudeatzen du, eta hamabost egunean behin aholkularitza juridikoa ematen du atzeritartasunaren arloan.

NOR?

Hauek dira zerbitzu hau eskura dezaketen pertsonak:

- Atzeritartasun-izapideekin orientazioa edo laguntza behar duten atzeritarrak.
- Atzeritarrekin lan-harremanak edo familia-harremanak dituzten eta atzeritartasunari buruzko orientazioa behar duten Ermuko herritarrak
- Atzeritarren arloan aholkularitza behar duten udaleko beste profesional batzuk (Gizarte Zerbitzuak, Enplegu eta Prestakuntza Zentroa).

NOLA ESKATZEN DA?

Zerbitzuan sartzeko, hitzordua eskatu behar da Abiapuntun, aurrez aurre edo telefonoz.



KOSTUA

DOAKO zerbitzua da



ESKUDUNTZA

Ermuko Udala eta Eusko Jaurlaritza



943 179 142